

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL KONTSEILUA 2019ko URRIAREN 22ko OHIKO BILKURAREN AKTA

Bertaratu direnak:

Juan Antonio Fernández jauna, Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzako idazkari nagusia eta Kontseiluko presidentea, lehendakariak eskuordetuta.

Sofía Marroquín andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundeko presidentea eta Kontseiluko presidenteordea.

Paul Ortega jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria.

Fátima Ansotegi andrea, Osasun Sailaren ordezkari gisa.

Jordi Campás jauna, Ogasun eta Ekonomia Sailaren ordezkari gisa.

Agurtzane Llano andrea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila ordezkatzuz, hitzarekin baina botorik gabe.

Jone Miren Fernández andrea, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren ordezkari gisa.

Jesús Losada jauna, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren ordezkari gisa.

Ane Miren Fernández andrea, Emakunde ordezkatzuz.

Eva Juez andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideetako eta Berdintasuneko Batzordearen ordezkari gisa.

Ignacio Rodríguez jauna, Bizkaiko Foru Aldundia ordezkatzuz.

Nerea Melgosa andrea, Arabako Foru Aldundiaren ordezkari gisa.

Mikel Diez jauna, Gipuzkoako Foru Aldundia ordezkatzuz.

Juan Manuel Balerdi jauna, Euskal Fondoa ordezkatzuz.

Olga García andrea, Josu Urrutia jauna, Iñigo Eguren jauna, Iñaki Orube jauna, María Viadero andrea, Eneko Gerrikabeitia jauna eta Natalia Rodríguez andrea, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen ordezkari gisa.

Joseba Andoni Sainz de Murieta jauna, Zaloa Pérez andrea, Gorka Urrutia jauna eta Igone Revilla andrea, garapenerako lankidetzaren Euskadiko bestelako gizarte-

agenteen ordezkari gisa. Raquel Celis ere bertaratu da, CEAR Euskadiko ordezkari gisa, hitzarekin baina botorik gabe.

Noemí de la Fuente andrea, Kontseiluko idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Kontseiluko presidenteak gonbidaturik, gai-zerrendako bosgarren puntura entzule gisa bertaratu dira Edurne Bengoechea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako koordinazio teknikoaren arduraduna, Blanca Pérez zerbitzuetako arduraduna eta Ana Rojo aholkularitza juridikoaren arduraduna.

Ezin etorria adierazi dute:

Mikel Antón jaunak, Lehendakaritzaren ordezkari gisa.

Maite Etxebarria andreak, EUDEL ordezkatzuz.

Olatz Garamendi andreak, Hezkuntza Saila ordezkatzuz.

María del Mar Magallón andreak eta Santiago Martínez jaunak, Euskadiko GGKEen Koordinakundea ordezkatzuz.

Elsa Fuente andreak, garapenerako lankidetzaren Euskadiko bestelako gizarte-agenteen ordezkari gisa.

Lekua: Lehendakaritza

Data eta ordua: 2019ko urriaren 22a, 10:30ean

Jonan Fernándezek bertaratuei ongietorria egin die, eta bilkurari hasiera eman dio, 10:40an. Jakinarazi duenez, Lehendakariaren urriaren 14ko 28/2019 Dekretua argitaratu da, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluko zenbait kideren izendapena berritzen duena. Eta ongietorria egin die lehen aldiz bertaratu diren pertsoneri.

Bertaratuen banan banako aurkezpena egin da jarraian. Eta honako gai-zerrenda honi jarraikiz egin dugu aurrera:

- Aurreko bilkuraren akta onartzea
- Batzorde Iraunkorreko kide berrien izendapena onartzea
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2018ko memoriaren aurkezpena
- Garapenerako politiken koherentziari buruzko lehen txostenaren lizitazioaren tramitazioa eskatzea
- Euskadiko GGKEen Koordinakundearen sexu-jazarpeneko, sexuan oinarritutako jazarpeneko eta sexu-orientazioagatiko jazarpeneko egoerak prebenitzeko eta horietan jarduteko protokoloaren aurkezpena
- Hainbat gai, galde-eskeak

1. AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Bertaratuek inolako oharrik egin ez dutenez, akta aho batez onartu da.



Acta CVCD
20190709-eus.docx

2. BATZORDE IRAUNKORREKO KIDE BERRIEN IZENDAPENA ONARTZEA

Noemí de la Fuente Kontseiluko idazkariak adierazi duenez, Eusko Jaurlaritzaz bestelako administrazio publikoak ordezkatuz Kontseiluko kide izanik Batzorde Iraunkorrerako titular eta ordezko gisa izendatuta zeuden pertsonak kargua utzi dute, baita GGKEen Koordinakundeko ordezkarien ordezkoetako batek ere.

Eusko Jaurlaritzaz bestelako administrazio publikoetako ordezkariek Ignacio Rodríguez proposatu dute titular gisa eta **Nerea Melgosa** ordezko gisa; izendapen horrek urtebeteko iraupena izango du, ordezkaritza txandaka gauzatuko delako Eusko Jaurlaritzaz bestelako administrazio publikoen artean. GGKEen Koordinakundeak Olga García proposatu du.

Aho batez onartu da pertsona horiek Batzorde Iraunkorreko kide izateko izendatzea.

3. GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN 2018ko MEMORIA AURKEZTEA

Paul Ortegak aurkeztu du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2018ko memoria. Horrez gain adierazi du uztaileko Kontseilu Errektorean Koordinakundeak iradoki zuela lagundutako ekimenei buruzko informazio kualitatibo gehiago txertatzeko, eta komentario hori kontuan hartuko dela.



Memoria_2018_eus.docx



Anexo Memoria 2018 - subvenciones_conc



Presentación

memoria 2018_CVCD

4. GARAPENERAKO POLITIKEN KOHERENTZIARI BURUZKO LEHEN TXOSTENA LIZITATZEKO TRAMITAZIOA ESKATZEA

Noemí de la Fuentek gogora ekarri duenez, uztailearen 9ko bilkuran onartu zen garapenerako politiken koherentziarako lantalde bat osatzea, balioetan oinarritutako hezkuntzaren inguruko lehen txostena abian jartzea, eta lanerako azpitalde bat sortzea, erreferentziatzko terminoak sortzeko eta elaborazio-prozesuan laguntzeko.

Azterlanaren erreferentziatzko terminoak sozializatu dira, Hezkuntza Sailarekin adostutakoaren arabera. Euskadiko GGKEen Koordinakundeak bi ekarpen egin ditu: (i) aztergaia mugatzea —Eusko Jaurlaritzaren giza garapen jasangarriko ereduko printzipioekin lerrotzea—; eta (ii), hobetzeko proposamenen identifikazioa, aztertu beharrekoen artean txertatzea. Hezkuntza Sailarekin kontrastatuko dira ekarpen horiek, lizitazioa tramitatu baino lehen.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluak azterlan hau egiteko beharrezko baliabideak ez daukanez; besteak beste, txostenak egiteko proposamena egin dezakeenez; aurrekontu espezifikorik esleitu ez zaionez; eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, bere funtzioen artean, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari babesa eta laguntza eman behar dionez, osoko bilkurak aho batez erabaki du txostena egiteko lizitazioaren tramitazioa Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari eskatzea, 25.000 euroko zenbatekoan gehi BEZa.

Iñaki Orubek galdetu du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari aurrekontu propioa emateko aurreikuspenaz, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren irailaren 16ko 158/2008 Dekretuak ezartzen duenez. Noemí de la Fuentek erantzun dio zerbitzu juridikoarekin aztertzen ari direla hori aurrera eramateko modurik egokiena.

Horrez gain, Iñaki Orubek adierazi du aurreikusitako epeak berrikusi behar direla, azken txostena kontrastatzeko bilkura eta oporrak batera gerta ez daitezela.

5. EUSKADIKO GGKEEN KOORDINAKUNDEAREN SEXU-JAZARPENeko, SEXUAN OINARRITUTAKO JAZARPENeko ETA SEXU-ORIENTAZIOAGATIKO JAZARPENeko EGOERAK PREBENITZEKO ETA HORIETAN JARDUTEKO PROTOKOLOAREN AURKEZPENA

Sofía Marroquín Euskadiko GGKEen Koordinakundeko Gobernu Batzordeko presidentea eta María Viadero genero-taldeko kidea, urriaren 4an egindako Ezohiko Batzar Nagusian onartu berri den azken dokumentua egiteko prozesua eta edukia aurkeztu dute. Dokumentua laster egongo da eskuragarri Euskadiko GGKEen Koordinakundeko webgunean.

Jonan Fernándezek galdetu du aztertutako erreferentziazko esperientzietatik baten bat bereziki interesgarria iruditu ote zaien. María Viaderok Emakunderen eta Generalitatearen (garantistagoa biktimaren zaintzarekin hasierako faseetan) esperientzia nabarmendu du.

Ane Miren Fernándezek zorionak eman dizkio Euskadiko GGKEen Koordinakundeari, eta adierazi du dokumentua erreferentzia gisa hartuko dutela, txertatu berri dituen alderdi batzuetan bereziki, erreparazioan adibidez.

Eduarne Bengoecheak ere zorionak eman dizkie, eta jarraian adierazi du Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia prest legokeela hurrengo urratsetan laguntzeko, egokitzen jotzen badute.

6. BESTE BATZUK; GALDE-ESKEAK

Jonan Fernándezek bilkuratik irten behar izan du, eta horregatik, Sofía Marroquín presidenteordeak ordeztu du.

Paul Ortegak jakinarazi duenez, urriaren 23an argitaratuko da garapenerako lankidetzaren “Ignacio Ellacuría” Sariaren 2019ko edizioaren deialdia. Hautagaiak aurkezteko hilabeteko epea izango da. Hautagaiak aurkezteko deia egin du. Aurreikuspenen arabera, epaimahaiak abenduan eztabaidatuko du, eta saria urtarrilaren amaieran emango da.

Noemí de la Fuentek gogora ekarri duenez, “Ignacio Ellacuría” saria arautzen duen Dekretua berrikusten ari da, eta laster Dekretu-proposamen berria sozializatuko zaie, nahitaezko txostena egiteko.

Aztertzeko beste gairik ez zegoenez, 11:44an osoko bilkura amaitutzat jo da.

NOEMÍ DE LA FUENTE PEREDA

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO IDAZKARIA**

**JUAN ANTONIO FERNÁNDEZ
ERDOCIA**

**GARAPENERAKO LANKIDETZAREN
EUSKAL KONTSEILUKO
PRESIDENTEA**